

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Luzatzea alkatearen eginkizunen eskuordetzea

Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 44. eta 47. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, alkateak lan istripuaren ondorioz bajaran jarraitzen duenez, argitara ematen da alkateak behean adierazten den datan emandako dekretua, zeinaren bidez erabakitzen baita 2021eko otsailaren 28ra arte luzatzea alkatearen 2021eko urtarrilaren 11ko dekretu bidez udal honetako lehen alkateorde Inmaculada Albizu Fuentesi esleitutako eginkizunak, salbu eta dekretu berean tokiko gobernu batzarrari esleitutakoak.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2021eko otsailaren 24a

Behin-behineko alkatea
INMACULADA ALBIZU FUENTES